

10 trikimailu berokuntzan aurrezteko



Aldian behin, aztertu **galdara** eta **gas-instalazioa**, eta **purgatu erradiadoreak** beharrezkoa bada



Saihestu bero-galerak, kristal bikoitzeko leihoekin, burleteekin, pertsianekin, alfonbrekin, gortinekin, etab.



Erabili termostato programagarriak, berokuntza zure ordutegietara egokitzeko. **Energian %8tik %13ra bitarte aurreztuko duzu**



Etxean nahikoa da 20°-ko temperatura edukitzea. Hortik gorako gradu bakoitzeko, **faktura % 7 igotzen da**



Gauean, itxi leiho, pertsiana eta gortinak, **beroa mantentzeko**. Ez utzi temperatura 15 gradutik behera jaisten



Aireztatu, baina neurriz. 5-10 minutu nahikoak dira **airea berritzeko**



Utzi **erradiadoreak** libre. Airearen zirkulazioa oztopatzen baduzu energia gehiago kontsumituko duzu



Jarri **balbula termostatikoak** erradiadore bakoitzean, gela bakoitzeko beroa kontrolatzeko



Etxean, jantzi **berogarriak**. Berokuntzaren helburua ez baita guk beroa izatea, hotzik ez izatea baizik



Aprobetxatu **egun eguzkitsuak** eta utzi beroa leihoetatik sartzen

